


ikerbasque NEWS

Ikerbasque Ikertzaileak BERC Euskadiko Zientzia Sistema Zientzia Foroa

Gas hotzarekin egindako esperimentu baten elkarlotura neurtzen

Argitaratua: 25 Apirila 2014. Tags: [Elkarlotura](#), [Fisika kuantikoa](#), [Geza Toth](#)

Europa osoko zientzialariek (haien artean, Ikerbasque ikertzailea den Geza Tóth) gas hotzetan elkarlotutako egoera kuantiko handiak sortzeko garatutako elkarlan baten emaitzak Physical Review Letters aldizkarian argitaratuak izan dira, Editor's Suggestion bezala, eta lan azpimagarrien laburpenak biltzen dituen physics.aps.org webguneak islatu ditu ere.



Elkarlotura gertakari kuantiko harrigarria da, metrologian, komunikazio kuantikoan eta konputazio kuantikoan erabat erabilgarria dena. Azken aldiak ahalegin nabariak egin izan dira atomo hotzekin, harrapatutako ioi hotzekin eta fotoiekin elkarlotutako egoerak sortu ahal izateko.

Argitarapenak, Hannover-ko Carsten Klempt-en talde esperimentalak 8000 atomo hotz inguruko Bose-Einstein kondentsatua sortzeko esperimentua deskribatzen du. Egoera kuantikoa Dicke egoera bat zen, ordurarte optika

kuantikoa ezaguna baina modu esperimentalean frogatu gabekoa.

Alde teorikoan, UPV/EHUko Fisika Teorikoko saileko Giuseppe Vitagliano doktorego ikasleak eta Géza Tóth-ek, sistemaren elkarlotura kuantifikatzeko modu berria landu zuten. Era honetan, gutxienez 28 partikula elkarren artean lotu zutela frogatu ahal izan zuten. Elkarlotura sendoagoa aurkitzea ezinbestekoa da konputazio kuantikoarentzat eta egoera kuantikoen beste erabilera batzuentzako.

Erreferentzia: Detecting Multiparticle Entanglement of Dicke States, Phys. Rev. Lett. 112, 155304, Bernd Lücke, Jan Peise, Giuseppe Vitagliano, Jan Art, Luis Santos, Géza Tóth, and Carsten Klempt (OPEN ACCESS)

← Lotura txiki baten ondorio garrantzitsuak: karbonoan oinarritutako elektronika berri baterako bidean

Comments are closed.



Ikerbasque Ikertzaileak

Legionella organismoan ezkatzen laguntzen duen mekanismoa aurkitu dute

Agenda

UZT

10

Og.

International Workshop on Learning and Memory Consolidation @ Miramar Jauregia

Hedatuena

Azkenak

Iruzkinak



Consejos a un Joven Científico, Pedro Miguel Etxenike-rekin hitzaldia Azaroa 21, 2012

Molekula batek erreazio kimiko batean jasaten dituen aldaketa atomikoen irudiak jaso dituzte lehenengo aldiz Ekaina 1, 2013



Molekula baten barruan argiarekin begiratzen Ekaina 6, 2013



Ikerbasqueko hainbat ikertzaile ahots sintesiaren nazioarteko proiektu baten nabarmendu dira Ekaina 11, 2013



Euskadiko ekoizpen zientifikoa %11
hazi da azken urtean Ekaina 11, 2013

Gure eBuletinera suskribatu

Gure azken berriak jasotzeko, sar ezazu zure posta elektronikoko helbidea bertan

Izena eman!

Argazkiak Flickr-en



Jorratutako galak...



© 2014 News Ikerbasque.